



## xxBANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Alde batetik, **banaketa** kontuan hartuz, kamio garraiolari bat kontratatuko dugu gure produktua biltegitik Samsung-eko biltegietara eramateko. Samsung markako salmenta puntuetan salduko dugunez, beste produktuengandik bereizita egotea gustatuko litzaiuke, beraz, beste fundekin kokatu arren, gure "erakusmahai"l sortu dugu erakargarritasuna sortzeko bezeroengan.



Beste aldetik, online salduko dugu gure produktua, samsung dendan bidez egiten ditugun salmenten osagarri moduan. Horretarako webgune bat sortuko dugu, bertan gure deskribapenez gain gure irudia aurkeztuko dugu, jendeari jakinarazteko kutsatzen ez duen kargadore bat dela eta gure helburu nagusia hori dela. Mezu horren bidez bezeroak erakartzea espero dugu guztien artean naturaren egoera hobetzeko. Webgunean produktuen prezioak ere agertuko dira, eta baita erosketaren prozesuan garrantzitsua den informazio guztia: nola iritsiko den produktua, zenbat denbora tardatuko duen bezeroengana iristen, eskaintzaren bat dagoen...

-Nola iritsiko den: banaketa kanala eraginkorra eta azkarra ezinbestekoa da.

-Zenbat denboratan?: Gehienez aste bat jarriko dugu baina seguruenik 2, 3 egunetan iritsiko zaie kontsumitzaileei.





**Bezeroek** gure produktu kartera ezagutzeko hainbat bide desberdinez baliatuko gara. Alde batetik publizitatea egingo dugu, adibidez, herrian zehar panfleto desberdinak jarriko ditugu, gehienbat, taberna gunean, jende gehiagok ikusi dezan. Horrez gain, herriko denda batzuekin kontaktuan jarriko gara beraien dendetako kristaletan edo atean ezarri ahal izateko. Era horretan, jendea jakinaraztea errazagoa iruditzen zaigu. Guzti horrekin gure herri inguruko lekuetan banatuko dugu herritarrak jakinarazteko gure produktuaz eta produktuk duen erabilgarritasunaz.

Horrez gain, ikastetxe desberdinetara joango gara Agenda 21 proiektuko (Ingurumen hezkuntza proiektua) arduradunen bitartez, publizitatea egiteko, gazteei bideratutako produktua da gehienbat, beraz, gure bezero potentzialak haiek direnez ideia ona iruditu zaigu metodo horren bidez gure produktua zabaltzea.

Azkenik, hainbat egunkariarekin harremanetan jarriko gara gure produktua bertan iragartzeko helburuarekin, ideia bikaina izango litzateke, esaterako "El Correo" egunkarian, jende askok irakurtzen duen egunkaria denez gure produktua jende askok ikusteko aukera du eta horrela bezero gehiago animatzeko aukera dago.

